Euscaldun Onaren Viciera (1765) de Sebastian Mendiburu. La Union Vascongada. 15 Mayo 1899.

9838

POESIA EUSKARA copiada por Edward S. Dodgson.

# JESUSEN BIHOTZ MAITAGARRIARI

**Gure gusto, gure atsêguin,**
**gure JESUS maiteà:**
*Cere BIHOTZECO sùàn* /T
*erre zazu gureà.*

**1**

**Gure obenac, gure lóiac**
**lenic quendu behar dirà;**
**ùra zara, quen itzàzu,**
**galdu gara bestelà.**
**Ba-daquigu, zaudelá**
**gure amorez beteà.**
*Cere BIHOTZECO sùàn*
*erre zazu gureá.*

**2**

**Etceuden bacarric lóiac**
**gure bihotz gaístoán;**
**busti ta ur eguiña dàgo**
**becatuen eutsuàn.**
**Garbia da, idor dágo,**
**JESUS ona, zureà.**
*Cere BIHOTZECO sùàn*
*erre zazu gureá,*

**3**

**Arguiz dago beoterío,**
**Jesus, zure BIHOTZA:**
**illumbean gureà,**
**elurra bezain otzá.**
**Emen gatoz, aguer zàzu**
**zu ganaco videá.**
*Cere BIHOTZECO sùàn*
*erre zazu gureá*

**4**

**Noizbait noizbai arquitú dut**
**bular ori idiquià!**
**sartuco naz, ar nazàzu**
**BIHOTZ-ean gucià.**
**Egon behar ez oté dut**
**nic or beti gordeà?**
*Cere, etc.*

**5**

**Zure suac, zure gàrrac**
**auts-eguiñen naute ni?**

guerostic egoin ninaàque
amorez urteen beti.
Jesus, zu zaranez quèro
gure animen labeà.
*Cere, etc.*

6

Hau cer da? cer penac dira
dituzunsc barrendic?
Zure BIHOTZA utci dúte
dena nequez beteric!
Cein andia cein latzà,
daramazun nequea!
*Cere, etc.*

7

Zure BIHOTZA arquitcén da
lantzaz erdiratuà:
nere culpen burdiña dà
lantz erdiratzalleà.
Damuz autsi ba-ledì
nere barren tristeà!
*Cere, etc.*

8

Arantza zorratzac báicic,
ez dezu nere escutic:
nere culpen arantz èquin
dena zaude odolturic.
Ah ni baldin ba-nengò
negar, damuz asèà!
*Cere, etc.*

9

Gure culpac eguin dúte,
Gure sendor orí;
ezartcen diote cùlpac
zure BIHOTZ onari.
Culpa gaisto, ta oban gògor,
oben culpa nereá!
*Cere BIOTZECO sùàn*
*erre zazu gureá*

10

Cer nai dezu? certan zaúde,
Jesus ona Aldareán!
charqueriac artzen dàga
amorezco lecuan!
Charquerien pena nai du,
nai du gure amoreà.
*Cere BIHOTZECO sùàn*
*erre zazu gureá.*

11

Ez dut behar maitatú,
jesus zure BIHOTZA!
artu behar ez dut nic
zure nequen damuá?
Esque nator, zabal zazu
sar-videco Ateà.
*Cere BHOTZECO sùàn*
*erre zazu gureá.*

*Jesus-de Madre-la-para Canto-el.*
*Jésus-de Mère-la-Pour Chant-le.*

# JESUSEN AMAREN CANTA

**Nai dezuna ba-dezù**
**VIRGIN AMA maiteá;**
***Izan nadin obeá,***
***laguntz anitz indazù:***

**1**

**Ciquindu cen munduà**
**Adanen becatutíc;**
**Virgin Ama bacarríc**
**gueldítu cen garbiá.**
**Batayoz utci dugú**
**Adanen loi galduà;**
***Izan nadin obeá,***
***laguntz anitz indazù.***

**2**

**Cer ote dá, nolacòa,**
**Ama zure graciá?**
**Asitce beretic dà**
**edocein arritzecóa.**
**Jaincoac utzi zaitú**
**ondasunez beteà.**
***Izan, etc.***

**3**

**Zara Jaunac eguiña**
**munduaren oneràco,**
**eman dizu orretaràco**
**behar dezun, guciá.**
**Guero berac artù dù,**
**behar zuen videà.**
***Izan, etc.***

**4**

**Gabriel vidaldurlo**
**baimenaren billará,**
**zu baitan gueldítu dà**
**Jainco-guizon eguinío.**
**Cere pean or dezú**
**Erreguen ERREGUEA.**
***Izan, etc.***

**5**

**JAINCOAREN Ama zàra**
**Jaincoaren ALABA;**
**gure alde zu ba-zarà**
**ongui doatsuac gàra;**
**Jaincoac eguin zaitú**
**gure ERREGUIN andiá.**
***Izan, etc.***

6

JAINCO-dun ta VIRGINA
izan ciñan noizbait zû;
hume Iainc-eguin dezú
ta al-ere zu VIRGINA.
Beti beti VIRGIN zù,
VIRGIN Ama maitea.
*Isan, etc.*

7

BULARREZ aci dezù
Jainco guizon cerèa;
zuc emanez esneà,
arc gosea utci dû.
Soñezcoz utci dezú
era onean jauntziá.
*Isan, etc.*

8

Igyt-artera ba-dòa,
doa zure besoàn;
sartuco ba-da ELIZAN
zu-requin batean doà,
Zu-requin JESUSec dù
bere vici-ibilliá.
*Isan, etc.*

9

GURUTZEAN josià
ill ceneau SEMEA,
an ecu negues betea
onen AMA VIRGINA:
onec bihotzean dú
aren pena-nequeà.
*Isan, etc.*

10

Gucien Erreguiñá,
Ceruan eguin zaitú;
or Jaunac eman dizù,
cegoquizun COROA.
Orregnin artu dezú
jale tasun gureá.
*Isan, etc.*

11

Alaber eguin zaitú
gu gucien Artecó;
eman ditu orretacò
nai adiñ indar, ta escù.
Onguin asqui ba-daquizú
gure behar gabeà.
*Isan, etc.*

12

ERREGUIN manatzallè,
Ceru-lurren jabeà,
bihotzez naz zureà,
hitz gogoz escatzallè;
es niri zuc ucatú
gaur escatcen dudanà.
*Isan nadin obeá,*
*lagunta anitz indarù*

Para la Bibliotheca de Don Julio de Urquixo ta Ibarra,
10 de Junio de 1906. E. S. Dodgson.